

# Aurkezpena

Adiskide euskaltzaleok:

Badakigu Alfonso Irigoien jaunak gure artetik alde egin ez baleu, bera izango zala irakurle ni nabiltzuen mikrofono honetan. Baina fortunak bere tasun eta kerietan halan gura izan dauanez, Leizarragak dinoskuna aintzat hartu beharko dogu: “Ezen testamenturik den lekuan, nezesario da testamentu egilearen herioa den. Ezen testamentua hiletan konfirmatu da, ikusirik ezen oraino ez duela balio testamentu egilea bizi deno” (*Hebraikoe* 16,17). Halandaze, bera poztuko zan pozaz aurrera jarraitzea jagoku.

Ez da zalantzarik, Batzar Nagusietako areto txukun honetan alkartu garanok XX. Mendearen Goienean euskaraz bizi garala, eta bizi ere Euskal Herriko mendebaldean, bizkaiera egiten dan lurraldean. Zalantzazko ez dan moduan, euskara batua Mendebaldeko ikuspegitik begiratzen dogula, bai etxetiko euskara daukagunok eta bai D eredu-tan zein euskaltegietan euskaldunduak ere.

Bizigiro honetan, Mendebaldeko partaideok euskararen korpua zein estatusa jagon, landu eta bultzatzeari ekin deusogu -beste batzuk urteetan jardun izan daben bide beretsutik-. Behar-beharrezko ikusten dogu euskal hizkuntzaz beronen osotasunean, eta bereziki euskara batuari Euskal Herriko Mendebaldeko euskarak, bizkaiera izenaz eza-gutzen danak, eskaini leion ondarea ikertzea nahiz indartzea, bai tradi-zioko hizkuntzaz, zein gaur eguneko berbeta bizi-az.

Mendebalde Kultur Elkartekook bosgarren urtera heldu garanean, pentsatu dogu, gure solasak, gure ikasteak ez dauala luzaroago ezkutu irauin behar eta plazara urten dogu. Plazan, jendetzaren bila ere ez gara ibili, haziz doan landareari haize handi eta indartsuak baino mendebalde bare eta zirimiritsuak hobeto datorkoz sustraietarako eta.

Gure Arautegiko helburuetan iragartera emoten dan moduan, lortu doguzan aurreratzeak *Mendebalde 1* liburuan argitaratuaz ganera, agiriko Jardunaldiok ere prestatu doguz. Eurotan, izatez gaia monografiakoa bada ere, “Mendebaldeko Euskara XX. Mendearen Goienean”, bizkaieraren mataza askatzeko firu askori ekin deusogu tiraka, ahozko literaturatik hasi eta hedabideetarainokoari.

Euskara estandarra abiatu zanetik ia hogeita hamar urteko praktika-  
ren tontorrera ailegatu garanean, atzera begiratuta sentitzen dogun atseginagaz batera, hutsak ere garbi agertzen jakuz. Dana dala, ez da gure asmoen artean inor parkeske hasi daiten, “etxeko txingarra etxeko hautsaz amatatu” nahi dogu eta. Halan eta guzti ere, ezin argiago ikusten dogu bizkaieraren lurretan bizi dan euskaldungoak kontzientzia sendoa hartu dauala bere berbakeraz eta ez deritxola zuzen euskara batuan, egunero darabilen euskalkiaren presentzia horren urria izateari; zuzen ez deritxon moduan euskara estandarra eraikitzeak norbere berbakera ez lantzea ekarteari.

Euskara batua behar genduan eta behar dogu. Ganera, aurrerago eroan behar da oraindik batasuna, batez ere ahozko kodearen arloan. Euskalkiak, bestalde, bizirik diraue euren aberastasun osoan kolore guztietako ñabarduraz. Mendebaldeko, zeuekaz batera, euskalkiaren lekua, zeregina argitu gura geunke, horretara euskara batuak berak ere jagokozan sailetan funtziona dagian. Halan gertatu daiten, erregistroen mailako funtzioak egoki bereiztu nahi doguz, erregistroak euskal hizkerak ere badirela jakinik.

Beraz, mendebaldeko euskaldunak izanik, bideratu nahi geunkena da, ea estandarra nork, non eta noiz; ea bizkaiera erabiltzea nori dago-  
kion, baita non eta noiz ere. Horri loturik, jakina, zein kutsuko batua edo zelango bizkaieraz baliatu argituko litxakigu. Zergaitia Aita Villa-

santeren testutik datorku: “Idazmota eta jenero batzuetarako orain ere, eta agian luzarorako, egokiagoak gerta daitezke euskalkiak euskara batua bera baino, mendez mendez bildutako kutsu eta lurrun hori dela kausa edo toki jakin bateko hizkeraren hurbiltasuna dela kausa”. (*Euskararen Auziaz*, 225, 1988).

Areto honetara hurreratu zaren guztioi eskerrak emoten deusueguz, orain entzule, eretxi emoile zaituegulako eta geroan, seguru asko Mendebaldean euskararen aldeko zereginetan lankide. Lino Akesolok idatzi eban (*Olerti*, 1962, 122): “Honen txikia izan gure auzotxo, eta, zer ete dogu alkar hain gitxi ezagutzeko?”. Hemen daukazue Mendebalde, eztabaidarako foro, auzolanerako gune eta bizkaieraren lurraldean bizi garan euskaldunon topaleku. Bakarrean hemengo guztiok nor edo nor garala badakigu eta alkartuta askoz gehiago.

Danok batera urrun heldu geintekoz izarak dagozan lekuan izarak ikusten badoguz eta ez mamuak; erratzak aurkitzen doguzan tokian erratzak ikusten badoguz eta ez sorginak.

Eskerrikasko

*Juan Luis Goikoetxea Arrieta*  
Derio, 1997-05-02